

asteBURUKO PROPOSAMENAK

Sagardoa eta artea bat eginik

Hernani › lazko bideari eutsiz egingo da aurten ere Sagardo Eguna Txillida Leku museoa

A. A.

Txillida Leku museoko inguruek sagardotegi itxura hartuko dute igande goizean, museoak eta Hernaniko Udalak antolatuta Sagardo Eguna egingo baita han bigarren urtez. Sagardoa artearekin batuko da.

Txillida sendiak beti izan du lotura sagardoarekin. Hala, museoan Sagardo eguna antolatzea otu

zitzaien, iaz. Aurreko urteko arrakasta ikusita, aldaketa gutxi izango dira aurten. 12:00etan hasiko da sagardo festa, museoko ardura-dun Luis Txillidaren, Hernaniko Alkate Joxan Rekondoren eta Sagardogileen Elkarteko ordezkarien agurrarekin. Hortik aurrera, denboraldiko sagardoa dastatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Aurtengo uzta nahiko oparoa izan da, eta lortu den sagardoa gozoa eta frutatsua. Aitzakiarik gabekoa. Halaxe diote, behintzat, sagardogileek.

Dena den, sagardoa ez da sarrerekin egiten den jaki eta edari bakarra. Hala, sabela gozatzeko saggarrarekin egindako jakiak izango

dira: irasagarra, sagar tarta eta beste.

Horrekin batera, goiz osoan trikitilariak eta txalapartariak ibiliko dira ingurua girotzen. Bisita gidatuak ere antolatu dituzte Zaballegi baserria ikusteko. Horrenbestez, igande goizaz gozatzeko hamaika aukera izango dira Txillida Lekun.

SARRERAK 8 EUROTAN. Dagoeneko sarrerak salgai daude Hernaniko Biteri Kultur etxean, 8 eurotan. Museoan sartzeaz gain, sarrearekin igandean bertan sagardoa edateko edalontzia emango da.

Autoan joan nahi ez dutenentzat, autobusak jarri ditu antolakuntzak. Autobusak Hernaniko Atsegindegitik irtengo dira 11:30ean eta 11:45ean.

Zer: Sagardo Eguna.

Noiz: Igandea, hilak 4.

Non: Hernaniko Txillida Leku Museoa.



Giro eta paraje ederrez gozatu ahal izango da igandean Txillida Lekun egingo den Sagardo Egunean. OARSOALDEKO HITZA